



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

Almen

Ikastetxearen kodea:

012331

Data:

2023/06/14





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Arizmendi Ikastola Leintz bailarako hezkuntza-kooperatiba euskalduna da. Hain zuzen, 1960ko hamarkadan bailaran sortu ziren ikastolen bateratze-prozesutik eraikia. Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasaten kokatutako 12 gunetan banatuta, Haur Hezkuntzatik Batxilergo eta Lanbide Heziketara bitarteko eskaintza dauka ikastolak.

3000 ikaslelik gora eta 270 profesional inguru ditu Arizmendi Ikastolak eta kooperatiba integrala da familiak, profesionalak eta kolaboratzaileak direlarik bazkide.

Ikastola zabalik dago bertaratu nahi duten familia guztiendako eta kolektibo anitza osatzen dugu. Guneen artean desberdintasunak dauden arren, orokorrean maila sozioekonomiko ertain-altuko familiak ditugu bertan. Ondorioz, baliabide teknologiko batzuk Ikastolarenak diren arren, LH5etik aurrera, ikasleek ordenagailu pertsonala erosten dute Ikastolaren bitartez eta honetarako zailtasunak dituzten ikasleei Ikastolak uzten die gailua.

Arizmendi Ikastolak, azken 10 urteetan eraldaketa pedagogikoa emateko hainbat pausu egin ditu. Ikasleak gaur egungo errealitatera prestatu beharrez, etorkizuneko balizko errealitatean, barne sendotasuna duten pertsona euskaldun, erabakitzaile, ekintzaile, eraldatzaile eta kooperatiboak izan daitezen prestatzeko helburuz, eraldaketa integral bat gauzatzen ari gara.

Eraldaketa pedagogiko honen barruan, baliabide digitalak helburu moduan hartu beharrez, tresna moduan ulertzen ditugu. Atal hau lantzeko daukagu oraindik, eta marko teknopedagogiko bat sortzea Ikastolako lehentasun estrategiko bat da. Adinaren arabera sortuta ditugun egitasmo pedagogikoen markatuko dituzte irizpideak eta kasu guztietan, baliabide digitalak pedagogiaren zerbitzura jarriko dira. Era berean, baliabide hauen erabilera egokia eta osasuntsua ardatz moduan ikusten dugu Ikastolako esparru guztietan.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Urteak dira Arizmendi Ikastolak Informatika eta Komunikazio Teknologien hedapenean aurrerapauso nabarmenak ematen hasi zela. Ikastolak fisikoki duen antolaketak berak derrigortu du zenbait azpiegitura egokitzera.

Teknologiak, Ikastolaren komunikazioan, kudeaketan eta ikas-prozesuan bertan eragiteko moduko azpiegitura antolatzea garrantzitsua izan da. Hamabi gunetan banatuta egoteak, datu guztiak bateratuta eta leku bakar batetean izatearen hautua eginez, teknologiak hedapen indartsua izan du, softwareari zein hardwareari dagokionez.

Hori kudeatzeko, IKT taldea antolatu da. Ikastolako IKT dinamizatzailea eta IKT mantenuko 3 teknikariz osatua. Teknikari horietako bik, kanpo enpresa batekoak izanik azpikontratuz euren jardun osoa ikastolan betetzen dutenak eta badago hirugarren langile bat DUAL modalitatez kontratatua, taldean aritzen dena ere.

Mantenuko protokoloa ezarrita dago. Arazoa aurkitzen duenak, Langileen atarian dauden baliabideen bitartez, intzidentzia irekitzen du eta ikt taldearen esku geratzen da arazoaren azterketa eta konponketa.

GAILUAK:

- LH 5tik aurrera, ikasle bakoitzak bere gailua du. LH 5.mailatik eta DBH 4.mailararte Ikastolako domeinupeko Chromebooka, familiak erositakoa, erabiltzen dute. DBH4. mailatik aurrera berriz, ikasle bakoitzak ekartzen du berak aukeratutako eta erositako gailua. Ikastolak wifirako sarbide pertsonala eskaintzen du. LH1-4 mailetan, Ikastolakoan izanik, taktikak diren chromebookak daude karroetan kokatuta, eta irakaslearen behar eta erizpideen arabera behar denean erabiltzen dira.

- Irakasle gailuak: Haur hezkuntzako 3-6ko tutore direnetik hasita eta LHko 6. mailararteko irakasle guztiak Chromebook bana dute. DBHtik aurrera, Lanbideko irakasleak barne, Windows eramangarria daukate.

- Administrazio eta zerbitzuetako langileek Windows ordenagailuak erabiltzen dituzte.

Azpiegiturei dagokionez, zerbitzariak, sarea, internetera zuntz bidezko konexioa, geletan konexio puntuak eta wifi antenak dituzte.

Ikastolak, gunearen arabera domeinu kontrolatzaileak ditu. Eta gure erdigunean datu zerbitzaria dago ere. Horretaz gain, kontabilitate eta pertsonalgoaren departamentuaren zerbitzaria badago ere.

Ikastolako espazio guztiak daude internetera konektaturik, ikastolako metodologiak eskatzen dituen beharrei erantzuteko, bai lan pertsonala, bai taldekoa bermatu ahal izateko.

Ikastolak 2 domeinu kudeatzen ditu:

Ikasleekin elkar lana bideratzeko arizmendikide.net
Profesionalen lan eremua, arizmendi.eus

Azpiegiturei dagokionez, zerbitzariak, sarea, internetera zuntz bidezko konexioa, geletan konexio puntuak eta wifi antenak dituzte.

Ikastolak, gunearen arabera domeinu kontrolatzaileak ditu. Eta gure erdigunean datu zerbitzaria dago ere. Horretaz gain, kontabilitate eta pertsonalgoaren departamentuaren zerbitzaria badago ere.

Ikastolako espazio guztiak daude internetera konektaturik, ikastolako metodologiak eskatzen dituen beharrei erantzuteko, bai lan pertsonala, bai taldekoa bermatu ahal izateko.

Ikastolak 2 domeinu kudeatzen ditu:

Ikasleekin elkar lana bideratzeko arizmendikide.net
Profesionalen lan eremua, arizmendi.eus

HORNIKUNTZA:

Gailuak:

Ikasleak (Chromebook)
Irakasleak (Windows eta Chromebook)
Langileak (Chromebook eta Windows)

Gelako gailuak:

PC-ak, inprimagailuak, arbel digitalak eta proiektoreak.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Eraldaketa pedagogikoaren baitan, hainbat aukera metodologiko eta hezkuntza ildo gure proiektu pedagogikoaren barnean txertatzen ari gara pausuz-pausu. Beste hainbat tresnarekin moduan, baliabide digitalekin ere, azterketa eta ikerketa lan baten bitartez, Ikastolako Marko Teknopedagogikoa sortuko da. Marko honetan, datozen urteetarako estretgia digitala finkatuko da eta egitasmo bakoitzean tresna hauek izango duten erabilera eta kompetentzia digitalaren lanketa zehaztuko dira.

Eraldaketa pedagogiko honen oinarrian dagoen planteamenduaren barruan, hau da, etorkizuneko balizko errealitaterako ikasleak prestatzeari dagokionean, berebiziko garrantzia dauka estrategia digital bat izateak. Baliabide digitalek, gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa daukatela kontuan izanda, tresna hauen erabilera egokian kompetente izatea eta erabiltzen jakiteaz gain, modu kritiko batean egitea lehenatasuna dira ikastolako pertsona ereduak garatzeko.

Ikas-irakaskuntza prozesuaz gain, Ikastolaren funtzionamendua errazteko ere, hainbat lanketa eta moldaketa egiteko beharra daukagu. Hain ikastola handia izanik eta hainbeste gunetan banatuta egonik, oso garrantzitsua da barne komunikaziorako eta beste hainbat gestiotarako baliabide digitalen antolaketa eta erabilera funtzionala ziurtatzea. Bide honetan, eta erabiltzen ditugun dokumentu kopuru handia ikusita, artxibategiaren antolaketa berriztu eta irizpideak markatzeko beharra daukagu. IPDk hau gauzatzen ere lagunduko duela espero dugu.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

FASEAK:

Analisia: Egoeraren argazkia eta hausnarketa eta ondorioak.

Diseinua: Helburuak zehaztea, lan-taldea osatzea, ekintza plana eta diseinuaren kontrastea.

Inplementazioa: 2324 eta 2425 ikasturteetako UKP barruan sartzeta eta akonpainamendua.

Ebaluazioa: Helburuen neurketa eta hobekuntza proposamenak.

ANALISIA

Urrian, Ikastolaren selfie galdetegia beteko dute irakasle, zuzendari eta ikasleek. Galdetegi honen bitartez, DigCompek planteatzen dituen puntuetan geure burua non kokatzen dugun eta hiru kolektiboen arteko irakurketa desberdinak eta beste hainbat konparaketa erakusten dituen txostena jasoko dugu.

Selfiearekin jasotako datuen irakurketa egin eta ondorioak ateratzeko, etapaka banatuta, hainbat bilera egingo ditugu. Bilera hauetan, indarguneak eta ahuleziak identifikatuko ditugu eta hauen inguruko hausnarketa bat egingo dugu puntu bakoitzean. Etapa guztietan jasotako ondorio hauekin, Ikastolako AMIA osatuko dugu eta ondoren, honako lanketa egingo dugu bertan jasotakoa uztartuz:

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Lanketa hau egiteko, IKT eta zuzendaritzako kide batzuek osatutako talde bat sortuko dugu.

DISEINUA

Urtarrilean, bigarren fase honekin hasiko gara eta aurreko ariketa eta Ikastolako beste behar batzuk kontuan hartuta, lehenengo pausua 2324 eta 2425 ikasturteetarako bizpahiru helburu finkatzea izango da. Helburu hauek, aurrez aipatutako lan taldearekin zirriborratuko dira mentorearen laguntzaz eta Zuzendaritza Orokorreko taldearekin ere egingo da kontrastea ekintza plana diseinatzen hasi aurretik.

Markatzen diren helburuen arabera, talde berberak diseinatuko ditu ekintza plan guztiak edo helburuarendako egokiena den lan taldea osatuko dugu. Sortutako lan talde hauek ekintza plana adosten dutenean ere, Zuzendaritza Orokorreko taldearekin kontrastatuko da datozen ikasturteetako Urteko Kudeaketa Planean txertatzearekin batera.

INPLEMENTAZIOA

Urteko Kudeaketa Plana osatzerakoan, gauzatze mailaren adierazleak eta ekintza planak dituen beharren eta antolaketaren identifikazioa eta diseinua egin behar dira. Lan bakoitzaren arduraduna nor izango den eta bertara bideratu beharreko baliabideak ere une honetan adostu beharko dira. Era berean, implementazio konkretu batzuk akonpainamendua behar badute ere, zehaztu behar da.

EBALUAZIOA

Amaitzeko, azken fasea ikasturtean zehar eta bereziki 2025ean egingo da. UKParen jarraipena ikasturteko bi momentutan egiten dugu, otsailean eta ekainean eta honen neurketarako, aurrez zehaztutako adierazleak erabiliko ditugu. Horretaz gain, 2025ean IPDaren helburuen betetzearen eta prozesuaren ebaluazioa egingo dugu Zuzendaritza Orokorra eta IKT arduradunen artean.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Aurrez aipatu moduan, Hezkuntza Proiektuan txertatu beharreko atal bat da baliabide digitalena.

Ikastolaren lehentasun estrategikoen artean, honako hauei erantzuteko baliagarri izango zaigu Ikastolako Proiektu Digitala:

- LE03 Ikaskuntza eredu berritzailea egitasmoetara hedatu.
- LE04 Ikasleen ebaluazio eredu definitu eta garatu.
- LE08 Aniztasunari erantzuna eman.
- LE10 Barne komunikazioa bermatu.
- LE12 Epe luzerako prestakuntza diseinatu eta garatu.
- LE13 Ikastolaren digitalizazioa burutu.
- LE14 Organigrama eta antolamendua egokitu.
- LE15 Kudeaketa aurreratua garatu.
- LE17 Kanpo komunikazioa sustatu.
- LE 20 Eraldaketa sozialerako estrategiak definitu eta garatu.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

LH

-Lidergoa

Indarguneak

Estrategia digitala

Egile-eskubideei eta erabilera-lizentziei buruzko arauak

Ahuleziak

Irakaskuntza digitala aztertzeke denbora

Ondorioak

Estrategia bat badaukagula ikusten da baina hori aztertu eta garatzeko denbora falta zaigula.

-Kolaborazioa eta sareak

Indarguneak

Elkarlana

Urruneko irakaskuntza eta ikaskuntzarako sinergiak

Ondorioak

Pandemiaren ondorioz urruneko formazioak eta elkarlana barneratu ditugu eta aukera moduan ikusten ditugu. Erabili egiten ditugu aukera hauek.

Tresna digitalen ebaluazioa eta eztabaida indartu egin beharko genituzke. Badaude erabaki batzuk bateratzeko eta hartzeko (adin bakoitzean zein tresna erabili, txatak, aplikazioak...).

-Azpiegitura eta ekipamendua

Indarguneak

Atala bere osotasunean

Ondorioak

Atal honetako azpiatal guztietan 4tik gora kokatzen gara, beraz, azpiegitura eta ekipamendua gure indargune argia direla esan dezakegu.

-Etengabeko prestakuntza profesionala

Ondorioak

Azkeneko urteetan eraldaketa pedagogikoaren barruan IKTen inguruko eztabaida, tresnen azterketa eta formazioa ez dira eman beste baliabide batzuen aldean. Lehen formazio gehiago egiten genituen.

-Pedagogia: laguntzak eta baliabideak

Indarguneak

Atala bere osotasunean

Ondorioak

Hezkuntza proiektua aurrera eramateko online baliabideak sortu eta erabiltzen ditugu, ditugun ezagutza eta aukeren barruan.

Zalantza sortu digu hausnarketa burutzerakoan, ingurune birtualak zer esan nahi duen.

-Pedagogia: ikasgelan aplikatzea

Indarguneak

Atala bere osotasunean

Ondorioak

Baliabide digitalen eskaintzen dizkiguten aukerak ikasleekin ere aplikatzen direla nabarmentzen da lanketa eremu ezberdinetan. Betiere ditugun ezagutza eta aukeren barruan.

-Ebaluazio jarduketak

Indarguneak

Ebaluazio digitala

Ahuleziak

Beste ikasle batzuei haien lanari buruzko iruzkinak egitea

Ondorioak

Orokorrean hobetu beharreko esparrua da. Ebaluazio digitalaren inguruan balorazio desberdina egon da guneen artean batzbesteko altua irten arren eta gainontzeko aspektuetan balorazioa bajua da.

-Ikasleen kompetentzia digitalak

Indarguneak

Eduki digitalak sortzea

Komunikatzen ikastea

Arlo ezberdinetarako trebetasun digitalak

Ahuleziak

Kodetzen edo programatzen ikastea

Arazo teknikoak konpontzea

Ondorioak

Ezagutza orokorra eskaintzen dugu baina ezagutza espezifikoa ez (teknikoa, kodetzea eta programazioa...). Irakasleen ezagutzak eta ikasleendako IKT lanketa espezifikorik ez izateak ondorio hori dakarte (IKTen lanketa transbertsala daukagu, baliabide moduan).

DBH

-Lidergoa

AMIA analisisa

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Azterketarako eta garapenerako denbora falta
Erabiltzen ditugun tresnen ebaluazioa ez dugu egiten
Etengabeko formazioa.
Baliabide digitalen erabilera zuzenaren inguruko ezagutza falta/begirada...
Ikasleek kodetzen eta programatzen jakitea.
Ikasleei beharretara egokitutako baliabide digitalak sortzeko zailtasuna

+ Lerro bat gehitu

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Digitalizazioaren garapeneraren erritmo azkarra
Gailu digitalekin , ikasleek arreta mantentzeko zailtasunak.
Ezagutza arrakala.
Irakasle kontratazioetan dagoen eskaintza ikusita, ez daukagu aukerarik gaitasun digitala kontuan hartzeko (BH)

+ Lerro bat gehitu

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
Azpiegitura eta baliabideak
Laguntza eta baliabide teknikoak
Diziplinarteko proiektuak
Erabiltzen ditugun ikas-irakas materialek euskarri digitala daukate
Kooperatiba izateak ematen duen autoeraketarako aukera
Ikasleek badakite edukiak sortzen eta komunikatzean.
Elkarlana irakasle zein ikasleen artean

+ Lerro bat gehitu

Aukerak (kanpo-faktoreak)
Next Generation funtsak
Belaunaldi berriak kompetentzia digitalaren hainbat aspektutan natiboak izatea. Irakasle zein irakasle.

+ Lerro bat gehitu

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

DIGCOMP oinarri hartuta, estrategia digitala eguneratzea, NextGeneration dirulaguntzen bitartez azpiegiturak mantentzeko.

Irakasle berriek duten ezagutza erabiltzea, baliabide digitalak aztertzeke eta Ikastolako elkarlana aprobetxatuz, baliabide hauek ebaluatzen eta aukeratzeko laguntzeko.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Hezkuntza Legeak ekar ditzakeen laguntza ekonomikoekin, irakaslearen talde-lanerako denbora handitzea.

Irakasleen DIGIPREST prestakuntza aprobetxatu ikasleen kompetentzia digitalaren garapenerako.

Irakasleen DIGIPREST prestakuntza aprobetxatu ebaluazioa eta feedbackerako tresna digitalak ezagutu eta erabiltzen hasteko.

Belaunaldi berriko irakasleek daukaten kompetentzia digitala aprobetxatu gure curriculumean pentsamendu konputazioanala txertatzeko.

DigComp markoa bera erabiltzea dokumentazio irizpideak zehazteko.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Digiprest ikastaroa aprobetxatzea, irakasleria trebatu eta digitalki kompetenteago bihurtu eta tresna digitalen azterketa eta aukeraketarako denbora eraginkortasunez erabiltzeko.

Diziplinarteko proiektuetan tresnak helburu ez direla aprobetxatzea, tresna digital egokiena erabiltzeko malgutasuna izanik, digitalizazioaren erritmo azkarrari aurre egiteko.

Elkarlana erabili digitalizazioaren garapenaren erritmo azkarra orekatu eta tresna digitalen ikerketarako denborari etekin gehiago ateratzeko.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Kontrataturako irakasle berrien kompetentzia maila ziurtatzea, ziurtagiriaren bitartez edo formazioa eskainiz.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Ikastolako estrategia digitala 2425 ikasturterako berritzea, proiektu pedagogikoak barne hartuko duen marko teknopedagogikoa idatziz.		
Deskriptorea		Epea
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da		2024-07-19
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Marko teknopedagogikoaren sorkuntza planifikatu: gidoia eta kronograma osatu.		IKT arduraduna	2023-09-22	Egina
DigComp markoa eta beste marko teknopedagogiko batzuk ezagutu eta ikertu (HUHEZI...).	HUHEZiko markoa	IKT arduraduna IKT taldea	2023-11-17	Prozesuan (%60-79)
DigComp markoa eta Konfiantzaren Pedagogia eta Pertsona Ereduaren arteko lotura egin.	KP liburua Ametsak Betetzeko Daudelako liburua DigComp markoa	IKT arduraduna IKT taldea	2023-11-17	Prozesuan (%60-79)
Marko teknopedagogikoa eta honi erantzungo dion estrategia digitala diseinatu.		IKT arduraduna IKT taldea	2024-03-15	Prozesuan (%60-79)
Zirriborroa osatu		IKT arduraduna	2024-03-15	Prozesuan (%60-79)

Dagozkien kolektiboekin kontrasteak egin (BZP, HUHEZI, HPB, egitasmoak...).		IKT arduraduna	2024-04-26	Egina
Zirriborroari moldaketak egin eta marko definitiboaren idazketa egin.		IKT arduraduna IKT taldea	2024-07-19	Prozesuan (%60-79)

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua
IDUaren printzipioak oinarri moduan hartuta, LH3-4rako ekoiztutako PROlen erdietan, irakasleei aniztasunari erantzuten lagunduko dieten tresnen identifikatze lana egitea eta komunikatzea.

Deskriptorea	Epea	
II 2.5 Ikaskuntza pertsonalizatua sustatzen da	2025-07-04	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Ehunekotan	%50

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IDUaren inguruko formazioa jaso		Orientatzaileak	2024-10-11	Egina
PROlak ezagutu eta beharrak identifikatu	PROlen gidak	IKT arduraduna IKT taldea	2024-11-15	Egina
Baliabideak ikertu eta PROlendako proposamena osatu		IKT arduraduna IKT taldea	2025-03-28	Prozesuan (%60-79)
Irakasle-taldeari baliabide digitalen formazioa eskaini		IKT taldea	2025-07-04	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

GP Garapen profesionala

Helburua		
2526 ikasturtean GURA LH4ko ikasleekin lantzeko, marko teknopedagogikoak jasotzen dituen zibersegurtasunaren inguruko printzipioekin saioa(k) diseinatzea.		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.2 EGPa maila guztietako pertsonalarentzat eskaintzen da	2025-07-04	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Zibersegurtasunaren printzipioen protokoloa sortu markoaren barnean		IKT arduraduna IKT taldea	2024-03-15	Egina
Adin honetako haurrek izan ditzaketen arriskuak identifikatu eta zibersegurtasunaren printzipioen lanketa irudikatu		IKT arduraduna GURAKo arduradun pedagogikoa	2025-02-28	Prozesuan (%80-99)
Gaia ikasleekin lantzeko ikas-egoerak sortu		IKT arduraduna GURAKo arduradun pedagogikoa	2025-07-04	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Ebaluaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako SAIOKAK eskaintzen dituen aukerak ezagutzea eta IZENeko irakasleak informatzea eta formatzea.		
Deskriptorea	Epea	
EJ 1.3 Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzen da.	2024-06-20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ebaluazio mota desberdinetarako SAIOKAK eskaintzen dituen aukerak ikertu	SAIOKA	IKT arduraduna	2024-03-15	
SAIOKAK eskaintzen dituen tresnak IZENeko beharrek kontrastatu	IEMetako gidak	IKT arduraduna IZENeko arduradun pedagogikoa	2024-06-20	
Online formaziorako beharrezko tresnak sortu		IKT arduraduna	2024-07-19	

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EC Edukiak eta curriculumua

Helburua		
2526 ikasturtetik aurrera, IZENeko ikasleek eta irakasleen sortzen dituzten lanetan lizentzia eta egile eskubideen inguruko marko teknopedagogikoan jasotzen diren jarraibideak zuzen betetzen dituztelako ziurtatzeko protokoloa sortzea.		
Deskriptorea	Epea	
EC 1.4 Erreminta eta eduki digitalek lizentziak dituzte hala behar denean	2025-03-28	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Marko teknopedagogikoaren barruan egile eskubideen eta lizentzien inguruko irizpideak markatu		IKT arduraduna IKT taldea	2024-03-15	Egina
Markoan egile eskubideen eta lizentzien inguruan jasotako jarraibideekin IZENera egokitutako protokolo bat osatu	Marko teknopedagogikoa	IKT arduraduna IZENeko arduradun pedagogikoa	2024-12-20	Egina
Protokoloa irakasle eta ikasleei komunikatzeko euskarriak sortu	Egile eskubideen eta lizentzien protokoloa	IKT arduraduna	2025-03-28	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua		
Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila
LG	Ikastolako estrategia digitala 2425 ikasturterako berritzea, proiektu pedagogikoak barne hartuko duen marko teknopedagogikoa idatziz.				
LG	Marko teknopedagogikoan jasotzen diren irizpideak 2425 ikasturtetik aurrera komunitatearekin lantzeko proposamena sortzea.				
LG	LH eta BHko ikasleen gaitasun digitalaren garapena marko teknopedagogikoan irudikatzea eta, 2425 ikasturtean DBH4tik hasita, gauzapenerako bideak jartzea.				

II	IDUaren printzipioak oinarri moduan hartuta, LH3-4rako ekoiztutako PROIen erdietan, irakasleei aniztasunari erantzuten lagunduko dieten tresnen identifikatze lana egitea eta komunikatzea.				
II	2223 ikasturtean IZEN DBH4rako ekoizle taldeak sortuko dituen PROIetan, marko teknopedagogikoan zibersegurtasunaren printzipioen inguruan jasotzen diren irizpideak txertatzeko bideak jartzea.				

GP	2526 ikasturtean GURA LH4ko ikasleekin lantzeko, marko teknopedagogikoak jasotzen dituen zibersegurtasunaren inguruko printzipioekin saioa(k) diseinatzea.				
GP	2425 ikasturtean irakasle berriendako harrera planean, marko teknopedagogikoak egitasmo horretarako jasotzen dituen irizpideen eta IEM ezberdinetarako eta egunerokotasunerako beharrezko tresnen inguruko informazioa eta formazioa eskaintzea.				

GP	2425 ikasturtean IZEN DBH4ko irakasle izango direnendako, marko teknopedagogikoak egitasmo horretarako jasotzen dituen irizpideen eta IEM ezberdinetarako beharrezko tresnen inguruko informazioa eta formazioa eskaintzea.				
EJ	Ebaluaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako SAIOKAK eskaintzen dituen aukerak ezagutzea eta IZENeko irakasleak informatzea eta formatzea.				

EC	2526 ikasturtetik aurrera, IZENeko ikasleek eta irakasleen sortzen dituzten lanetan lizentzia eta egile eskubideen inguruko marko teknopedagogikoan jasotzen diren jarraibideak zuzen betetzen dituztelako ziurtatzeko protokoloa sortzea.				
EN					
AZ					
IB					